



1. Irakurri txistea.
2. Lotu amaiera eta hasiera

## HASIERAK

— Adineko gizon bat sendagilearengana doa.  
Aspalditik zebilen ezkerreko hankako minez.  
Eman zion sendagileari gertatzen zitzaionaren  
berri eta honek erantzun zion:  
— Min hori adinarena da. Urteak, urteak, gizon!  
Eta gizonak, haserre, honela erantzun zion:

Lehengo aldiz Madrila joan zen kanpotar batek  
galdetu zion han aurkitu zuen beste bati:  
— Puerta del Sol-era joateko?  
— 59. autobusa hartu behar duzu.  
Handik lau ordutara leku berean ikusi zuen  
kanpotarra autobusaren zain eta galdetu zion:  
— Baina hemen al zaude oraindik?

Semeak amari:  
— Ama, ama! Egia al da erleak egiten duela  
eztia?  
— Bai, seme, eztia erleek egiten dute.



## BUKAERAK

— Eta, horren txikiak izanda, nola  
estutzen dute hainbeste potea?

— Zer urte eta zer demonio! Beste  
hanka ere adin berekoa da eta ez dit ba  
minik ematen...

— Bai, 52 autobus pasatu dira oraindik.



Sergio Tejero-(r)en 'Txistea',  
Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.  
Iturria: Ormazabal. Esaera zaharrak eta txiste berriak. Elkar, 1998